

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**◀

2005eko **MEMORIA** ▶



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

 <p>EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak</p>	 <p>Udako Euskal Unibertsitatea Udako Euskal Unibertsitateko Soziolinguistika Saila (UEU)</p>
 <p>ELHUYAR Aholkularitza</p>	 <p>AZTIKER Soziologia Ikergunea</p>
 <p>EMUN Kooperatiba</p>	 <p>ARTEZ Euskara Zerbitzua</p>
 <p>Eusko Ikaskuntza</p>	 <p>EHU-UPVko Soziologia II Saila</p>
 <p>Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza zientzietako Fakultatea</p>	 <p>Tolosako Udala</p>
 <p>Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETeLE)</p>	 <p>Topagunea. Euskara Elkarteen Federazioa.</p>
 <p>Hernaniko Udala</p>	 <p>Euskara Kultur Elkargoa</p>
	 <p>EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila</p>



AURKIBIDEA

1	Sar hitza	7
2	Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera	9
3	Antolaketarako ereduak: Klusterra	10
4	Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa	12
5	Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak	13
5.1	Soziolinguistika Klusterraren misioa	13
5.2	Soziolinguistika Klusterraren bisioa	13
5.3	Soziolinguistika Klusterraren balioak	13
6	Soziolinguistika Klusterraren mapa estrategikoa	14
7	Garatutako proiektuak	16
7.1	Arloa: Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B)	16
7.1.1	ARRUE proiektua	16
7.1.2	Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia)	17
7.1.3	ERALAN proiektua	18
7.1.4	ULIBARRI: kalitate lan taldea eta aholkularitza	19
7.1.5	Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak	20
7.1.6	Lezoko eta Pasaia haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna eta erabilera	20
7.2	Arloa: Argitalpenak	21
7.2.1	Bat Soziolinguistika Aldizkaria	21
7.2.2	Soziolinguistika Klusterraren webgunea	22
7.2.3	SOZIOLINGUISTIKAZ berri papera	23
7.2.4	<i>The Case of Basque: Past, Present and Future</i> liburua	23
7.3	Arloa: Formazioa	24
7.3.1	<i>Euskararen transmisioa eta erabilera</i> jardunaldia	24
7.3.2	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan	25
8	Eskainitako zerbitzuak	26
8.1	Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak	26
8.2	Ikastetxeetako Euskararen Erabileraren Neurketak	26
8.3	Euskaini neurketa	26
9	Soziolinguistika arloko sarea eratzen	27
10	Urteko helburuak eta balantzea	30
10.1	Adierazleen balantzea	31
10.2	Balantze ekonomikoa	32



1

Sar hitza

Soziolinguistika Klusterraren urteko memoria dokumentua duzue ondorengoa. Bertan jaso ditugu besteak beste, Soziolinguistika Klusterra zer den ulertzeko lagungarriak diren argibideak, bere jarduna zedarritzen eta iparra zehazten duten misio, bisio eta balioak eta 2005ean zehar Klusterrak garatuko proiektuen inguruko azalpenak.

Urteari gain-begirada orokor bat emanda, urte hasieran Soziolinguistika Klusterraren bidea abiatu genuenean egitasmo beraren bideragarritasuna ziurtatu gabe genuela ikusita, zoriontzeko modukoa deritzogu Klusterra soziolinguistika esparruan bere lekua egiten hasi dela ikustea.

Garatutako proiektu kopurua eta hauetan bazkideek izan duten parte hartzea izan dira Klusterrarentzat oinarri sendotako bat. Honen kontrapuntua finantziatziora bideratutako proiektuen kopuruan agertzen da. Urte hasieratik aurrekontua orekatu beharren zama gainean izateak eragin izan digu. Honela, proiektuak aukeratzekoan, lehentasunak finkatzekoan, irizpide nagusia finantziazioa izan da eta ez Klusterraren misioa edo berezko funtzioak. Finantziazio-irizpide hutsa ez da onartu, noski, proiektuak misioaren eta funtzioen ikuspuntutik ere aztertu ditugu, baina mendekotasun ekonomikoak baldintzatu du azken erabakia. Honetan, bide berriak jorratzeko argigarria eta lagungarria izan da hainbat udalen aldetik gurekin elkarlanean jarduteko adierazitako interesa.

Hobetzekoa ikusten dugu ere gure jardueraren hedapena lurralde ikuspegitik. Izan ere, gure lehen balioan, "Euskararen hizkuntza komunitatea bere osotasunean aintzat harturik jardungo dugu" jaso badugu ere, nagusiki Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara zabaldu dugu gure jarduna. Baxe Nafarroan, Lapurdin, Nafarroa Garaian eta Zuberoan berriz ez dugu proiekturik garatu.

Azken alderdi on bat azpimarratu nahiko genuke. Elkartearen aholkulari, lankide edota laguntzaile izan diren ikerlari eta adituen aldetik erakutsitako lankidetzarako prestutasuna eta jarrera ona, hain zuen ere. Erakunde sortu berria izanik eta esperimentazioaren esparruan aritu garelarik, guretzat ezinbesteko babesa eta laguntza suposatu du aipatutako adituek eginiko ekarpenak.

Bukatzeko, lerro hauek baliatu nahiko genituzke gure eskerrik beroenak helarazteko, gure proiektua aurrera ateratzen, elkarlanean jarduten eta, finean, euskararen normalkuntzarako bidean, soziolinguistika ezagutza garatzen, lankide izan ditugun erakunde eta norbanako guztiei. Eta nola ez, gure proiektuaren oinarri sendoena osatzen duten Klusterraren bazkide guztiei. Bide batez, bai aurrekoei, bai eta hizkuntza normalkuntza lanean murgildurik zaudeten eragile guztiei, jardun horretan ezinbestekoa zaigun soziolinguistika ezagutzaren garapenean bidelagun izateko, aurrerantzean ere, Soziolinguistika Klusterraren atea parez-pare zabalik izango dituzuela adierazi nahi dizuegu.




2 Soziolinguistika Klusterra proiektuaren sorrera

Soziolinguistika Kluster baten sorrera proiektu hau, **2000ko azaroan “Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen” SIMPOSIUMaren** erakunde antolatzaileek eginiko azterketaren inguruan egituratzen da. Bertan, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa eta zabalpen gune baten gabezia eta beharra jasotzen da, Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakundeei eta taldeei –pribatu, publiko zein gizarte mailako- arlo zientifiko-aplikatutik laguntza eskainiko diona, beren jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta, ondorioz, beren emaitzak hobetzeko.

Geroztik Soziolinguistika Klusterra sortzeko ahaleginean **bat egin dute hainbat eragilek**. Horien artean hasieratik daudenak NUP-UPNAko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, UPV-EHUko Soziologia I eta II Sailak, Mondragon Unibertsitateko Humanitateak Fakultatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea eta SEI Elkartea. Gerora proiektuarekin bat egin dute Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak, UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak eta Eusko Ikaskuntzak.

Azken urteetan Klusterra sortzearen aldeko bide horretan gaiaren inguruko eztabaidan sakontzen eta adostasunak bilatzen lan egin da: arloko eragileekin aurrez-aurreko bilerak egin dira, eztabaidarako foroak antolatu eta lankidetzarako hitzarmenak sinatu (2001eko maiatzean «Soziolinguistika Institutua Klusterra»ren aldeko Lankidetzeta-Protokoloa, 2001eko azaroan «*SIKeraiki*» Lan-Jardunaldia...).

Azkenik, 2004ko martxoaren 30ean Soziolinguistika Klusterraren eraketa batzarra egin zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.



3 Antolaketarako eredia: Klusterra

Soziolinguistika Klusterraren eraketarako, izenak berak adierazten duenez, **Klusterraren eredia** hobetsi da. Izaera guztiz ezberdina duten entitateak organizatiboki elkarren artean lotzeko baliagarria izan daitekeelako eta, gainera, badagoelako lehendik Euskal Herrian beste kluster batzuen eredia –hala nola Ezagutzaren Klusterra– oso lagungarri gerta dakigukeena.

Klusterra taldekatze bat da, esparru jakin batean elkarren artean nolabaiteko lotura, harremana edo interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen arteko taldekatzea. Normalki enpresak izaten dira klusterraren muina, eta haiekin batera administrazioak, unibertsitateak, formazio zentroak, elkarte profesionalak, edota zerbitzu bereziak.

Kluster baten **funtzioa** da **kooperazio egiturak antolatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea** eta berrikuntza sustatzea, horrek guztiak dagokion sektorearen garapenari positiboki eragin diezaion.

4 Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa

Lehen aipatu bezala, hainbat erakundek bat egin zuten Soziolinguistika Klusterra sortzeko beharrarekin. Honela, erakundeak beraiek izan ziren sorrera prozesu honen bultzatzaile nagusiak eta egun erakunde hauek dira Soziolinguistika Klusterra osatzen eta gidatzen dutenak. Ondorengoak dira Klusterraren eraketan parte hartu zuten, eta bazkide sortzaileak izan ziren erakundeak.:

1. Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea
2. ELHUYAR Aholkularitza
3. EMUN Kooperatiba
4. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea
5. UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak
6. Eusko Ikaskuntza
7. Udako Euskal Unibertsitatea (Soziolinguistika Saila)
8. SEI Elkartea

Behin Soziolinguistika Klusterra sortuta, ordea, SEI Elkartek bere egitekoa betetzat jo zuen eta desagertu egin zen. SEI Elkarteko norbanako bazkideak Soziolinguistika Klusterreko bazkide izatera igaro ziren orduan eta egun 115 bazkide norbanako ditu. Bestalde, Soziolinguistika Klusterrak izaniko harremanen ondotik, beste hainbat erakundek erabaki dute elkarteko bazkide egitea. Aurrekoek gain, egun, ondorengoek osatzen dute bazkide zerrenda:


- AZTIKER Ikergunea
- ARTEZ Euskara Zerbitzua
- Hernaniko Udala. Euskara Zerbitzua
- Tolosako Udala. Euskara Zerbitzua
- EHU-UPVko Soziologi I eta II sailak
- Topagunea. Euskara Elkarteen Federazioa.
- Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- Euskara Kultur Elkargoa
- EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila

4 Soziolinguistika Klusterraren osaketa eta antolaketa

Bestalde jarraian dituzue, Soziolinguistika Klusterreko Zuzendaritza Batzordea kideak:

- Iñaki Martinez de Luna (Eusko Ikaskuntza). Lehendakaria
- J. Inazio Marko (EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila). Zuzendaria
- Imanol Larrea (Emun Kooperatiba). Diruzaina
- Iker Salaberria. Idazkaria
- Rosa Ramos (Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte)
- Xabier Azkue (Elhuyar Aholkularitza)
- Josune Zabala (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea)

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN ORGANIGRAMA



5

Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak

5.1 Soziolinguistika Klusterraren misioa


Soziolinguistika Klusterraren misioa euskararen berreskurapenerako eta normalizaziorako soziolinguistika ezagutza garatzea da. Horretarako, azpiegitura, baliabide, eta baldintza egokiak sortzea, esparru zientifikoaren eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatzea.

5.2 Soziolinguistika Klusterraren bisioa

Lauzpabost urteko epean Soziolinguistika Klusterra euskararen soziolinguistikan erreferente nagusi izango den erakundea izango da; bertako eta kanpoko eragileekin harremanak izango dituena eta proiektu kooperatiboen bidez eta behar besteko autonomiaz bere bazkideen interesei zein euskararen berreskurapen prozesuaren ezagutza beharrei erantzungo diena.

5.3 Soziolinguistika Klusterraren balioak

1. *Euskararen hizkuntza komunitatea bere osotasunean aintzat harturik jardutea.*
2. *Lehialkartasuna: interes partikularretatik abiatuz proiektu kolektiboak garatzea.*
3. *Bazkideen jarduera errespetatzea eta indartzea.*
4. *Oro har, konkurrentzia saihestea eta osagarritasunak bilatzea.*
5. *Irudi zein komunikazio maila altua eta landua izatea.*
6. *Ekimen aplikatua arreta bereziz lantzea.*
7. *Kideek etekinak jasoko dituzte, eta neurgarriak izango dira.*
8. *Klusterrak erantzukizun sozialez jokatu du, gizarte mallan bere emaitzak zabalduz.*



6 Soziolinguistika Klusterraren mapa estrategikoa

Soziolinguistika Klusterraren Egitasmo Estrategikoa diseinatzerakoan "Balanced Scorecard" edo Gida Panel Integralaren eredua jarraitu dugu, beti ere gurea bezalako erakunde baten ezaugarrietara egokituz.

Eredu horren arabera, abiapuntua aurreko atalean ikusi dugun ikuspegi estrategikoa definitzea izan da. Hori egin ostean, helburu estrategikoak definituko dira lau mailatan banatuta:



Baliabideak: baliabide pertsonal eta materialen atalari dagokio.

Prozesuak: gure lanaren antolaketarako abian jartzen ditugun sistemei eta kudeaketa ereduari dagokio

Garapena: gure misio eta bisioa lortzeko zer egiten dugun

Erabiltzaileak eta komunitatea: gure misio eta bisioa lortzeko zer eskaini behar diogun erabiltzaile eta komunitateari

MAPA ESTRATEGIKOA:



7

Garatutako proiektuak

Esan liteke Soziolinguistika Klusterra hasi berria dela bere proiektuak aurrera ateratzen. Izan ere, 2004ko udazkenean heldu baikenien gure lehen proiektuei. Ordutik ordea, proiektu berri dezente landu ditugu eta gure ibilian, kanpotik ere eskaera dezente jaso ditugu. Hemen duzue garatutako proiektuen inguruko bilana:

7.1 Arloa: Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B)

7.1.1 ARRUE proiektua

Proiektu honen helburua eskola giroan euskararen erabileran eragiten duten aldagaiak aztertzea da. Hezkuntza Sailarekin hitzartutako proiektua dugu. 2005ean, ikerketaren alderdi desberdinen azterketan sakontzeko hainbat lantalde eratu zituen Klusterrak eta bertan unibertsitate ezberdinetako irakasleak (EHU, HUHEZI, Deustu) eta bestelako adituak ari ziren beren ekarpenak egiten eta esperientziak trukutzen. Proiektuko zuzendari lanetan berriz, Eusko Ikaskuntzako Iñaki Martinez de Luna aritu zen.

Jasotako datu eta emaitzen azterketan sakondu eta hurrengo urterako beharrezko metodologia egokitzapenak egite aldera, azaroaren 2an jardunaldi bat antolatu zen EHU-UPVko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Jardunaldi hau baliagarria suertatu zen, arlo desberdinetako hainbat adituk gai berdinen inguruan ekarpen bat egitea nola bidera litekeen irudikatzeke. Soziolinguistika Klusterrak ongi baloratu zuen, beraz, iazko esperientzia.

2005eko datu bilketa, Euskal Giroitze Barnetegietan egin zen eta hurrengo urteari begira, urrats berri bat eman asmo da datu bilketa ikastetxeetan bertan eginez. Horretarako noski, beharrezko metodologia egokitzapenak aurrez landu beharko dira.



Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
pablo@soziolinguistika.org



7 Garatutako proiektuak

7.1.2 Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia)

2003. urtean zehar, Pasaia Udalaren beka batean oinarrituta "PASAIKO GAZTEEN HIZKUNTZA JOKAERAK" ikerketa lana egin zen (ikerlaria: Maite Otegi). Ikerketa ikuspegi "psikosoziolinguistiko" batetik egin dago eta datu kuantitatibo nahiz kualitatiboak biltzen ditu. Ikerketa honen ondorioetatik abiatuta, Pasaia Udalak gazteekin abian dituen egitasmoetan (aisialdiko jarduerak...) motibazioa zein erabilera bultzatzeko materiala prestatzeko proiektua da hau. Helburua ez zen liburu bat egitea, jarduera eta egoera konkretuetan lagungarri, motibagarri, eraginkor... izango zen material ezberdinak egitea baizik. Material horiek definitu eta prestatzea zen proiektuaren xedea.

Proiektu hau Pasaia Udalaren eskariz eta Gipuzkoako Urtxintxa eskolarekin elkarlanean garatu zen. Soziolinguistika Klusterra hizkuntzaren esparru berri bat lantzerantz eraman zuen. Euskararekiko motibazio eta erabilera eragiteko bideak lantzerantz, hain zuzen. Kasu honetan beraz, erabat eremu aplikatuko proiektua landu genuen.

Proiektuaren emaitzak azaroan aurkeztu genizkion Pasaia Udalari eta bi aldeei eginiko lana eta eskuratutako emaitza kalitate onekoak izan zirela iruditu zitzaigun.

Aurrera begira, proiektu honetan landutakoaren zabalpena egiteko eta datu soziolinguistikoak hizkuntza erabileran eragile izan daitezzen nola erabili-zabaltzeko behar liratekeen aztertzeko lan jardunaldi bat antolatzeke asmoa dugu.

> | Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
pablo@soziolinguistika.org



7 Garatutako proiektuak

7.1.3 ERALAN proiektua

Proiektu honen bitartez, SL Klusterrak ikerketa prozesu bat sistematizatu nahi du lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaiak eta portaerak identifikatu eta, horiek abiapuntu, lan alorreko normalizazio egitasmoen hobekuntzarako eskuartze-proposamen positiboak formulatzera iristeko. Finean, egitasmo honen xedea honela definitu zen:

Hizkuntza normalizatorako planak onartuta dituzten lan munduko erakundeetan –publiko zein pribatuetan– euskararen erabilerarako oztopo diren aldagaiak identifikatzea eta horietan positiboki eragiteko metodologiak eta dinamikak diseinatzeko eta inplementatzeko ezagutza-gida sortzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak proiektu honekin elkarlanean jarduteko interesa adierazi zuen eta egun euren babesarekin daramagu aurrera. Bestalde, hasieratik Klusterreko bazkide diren Emun Kooperatiba Elkarte eta Elhuyar Aholkularitza ere proiektu honetako kide dira.

Proiektua urte anitzetan garatzekoa da. Aurten garatutako lan nagusiak, proiektu beraren diseinua zehaztu eta adostea eta erreferentziako dokumentazioaren ustiaketa egitea izan dira.

Datorren urtean zehar proiektu honetan erronka handia dugu. Lehendik aipatutako kideei, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta proiektutik ateratzen diren proposamenak martxan jarri beharko dituzten enpresa-instituzioak gehituko zaizkie. Eta bestalde, hasieran aipatutako aldagaien identifikazio lana egiteaz gain, landutakoaren kontrasterako topaketa zabal batzuk egin asmo dira.

> | Koordinatzailea: Oihana Lujanbio
oihana@soziolinguistika.org

7 Garatutako proiektuak



7.1.4 ULIBARRI: kalitate lan taldea eta aholkularitza

Ikastetxe mailako hizkuntza normalkuntza ahalbideratzeko Plan osatu bat abian jartzeko beharra ikusita sortu zen Ulibarri programa. Honek, aurrera eman diren proiektu partzialak bildu ez ezik, hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerako partaide helduen (irakasle, guraso, monitore...) arteko harreman-bizitzan eragile izan nahi du. Ahalegin honetan ari dira Ulibarri programan bildutako ikastetxe guztiak euren Hizkuntza Normalkuntza proiektuen bidez.

Soziolinguistika Klusterra programa honetako aholkularia da. Zehazki hiru ardatz nagusitan bideratzen du bere ekarpena Klusterrak. Batetik, programak aurrera begira hartu beharreko norabidea zehazten laguntzen, aholkulari gisa. Bestetik, programako dinamizatzaile nagusiak diren Hizkuntza Normalkuntza Teknikarientzat eta ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntzarako Arduradun Teknikoentzat formazio eskaintza landuaz. Azkenik, soziolinguistikarekin lotura duten behar berezien inguruko azterketak, materialak... lantzen dira.

Iazko ikasturtean, prestakuntzari dagokionez, nagusiki, gure hizkuntza portaera kontrolatzeko gaitasun psikologikoak eskuratzera bideratutako saioa prestatu genuen, Valentiako Unibertsitateko irakasle batzuk landutako eredu batetan (TELP) oinarrituta.

Bestalde, Ulibarri egitasmoaren arduradunek programaren inplementazioarekin, egitasmoarekiko inplikazioarekin, egitasmoaren instituzionalizazioarekin, komunikazioarekin, kalitate sistemen erabilerarekin eta, oro har, programaren funtzionamendu orokorrarekin zituzten hainbat zalantzei erantzun asmoz, proiektu berri bat jarri zen abian. Proiektua Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko Iñaki Markok zuzendu zuen eta Klusterreko kide den Emun Kooperatiba Elkarteak parte hartu zuen. Iazko urterako jarria genuen helburu nagusia kalitate programen eta normalkuntza programen ildoak uztartzen hasteko lehen urratsak ematea zen: ikastetxe bateko kalitate planean normalkuntza plana integratuta egon dadin eta, aldi berean, normalkuntza plangintzetan kalitate parametroak eta irizpideak erabil daitezten.

> | Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola eta Iker Salaberria
pablo@soziolinguistika.org, iker@soziolinguistika.org



7

Garatutako proiektuak

7.1.5 Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak

Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuek "Etxeko hizkuntzan eragiteko egitasmoa" prestatu zuten. Egitasmoaren helburua "familietan eragitea da", kasu batzuetan euskara bikote-eta familia-hizkuntza bihur dadin eguneroko erabileran, eta beste batzuetan ahalik eta presentziarik gehien izan dezan lortzea. Buruntzaldeko ekimenari erantzunez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proiektuari babesa eskaini dio eta bere egin du. Soziolinguistika Klusterra, HABE, HPS eta Buruntzaldearekin batera ari da proiektuan, beronen aplikazio praktikoaren ardura harturik.

Soziolinguistika Klusterrak 2005ean zehar eginiko lan nagusia proiektuaren diseinu eta definizioa osatzea eta gurasoei begira osatu beharreko materialean aholku ematea izan da.

Datorren urteari begira berriz, sortutako materiala zabaltzeaz batera, gurasoei hitzaldiak eskaintzea eta hauek duten eraginaren neurketa eta jarraipen sistema diseinatu eta abian jartzea izango da gure lan nagusia.



Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
pablo@soziolinguistika.org



7.1.6 Lezoko eta Pasaiako haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna eta erabilera

Lezoko eta Pasaiako Udalek herrian euskararen erabilera zenbatekoa eta nolakoa den neurtu eta ikertu izan dute azken 10-15 urteotan. 2005-2006 urteetan zehar ikerketa berri bat egiteko interesa adierazi dute: haur eta gazteen euskarazko gaitasunean sumatzen diren gabeziak aztertu nahi dituzte eta kale erabileran behatutako erabilera mailak kontuan hartuta egoeraren irakurketa kualifikatu bat egin.

Soziolinguistika Klusterrak eskaera hau jasota, ezagutza metodologikoan sakontzeko baliatu nahi izan du. Horrela, Klusterrak berak landu izan duen eta, oraindik orain, gutxitan erabilia izan den Gazteen Euskararen Erabileraren Neurketa eta Lore Erriondok eta Xabier Isasik garatutako Elebiduntasun Testak erabili asmo ditugu datu bilketa osatzeko. Bi metodo hauen bidez jasotako datuen gurutzaketak emaitza interesgarriak eman ditzakeela iruditzen zaigu, aurrera ere, beste hainbat ikerketei begira.

2005ean zehar Soziolinguistika Klusterrak bi Udalekin eta Lore Erriondo eta Xabier Isasiren aholkularitza jasota, proiektuaren diseinua zehazte lanetan jardun du. 2006ra begira berriz, datu jasotzea eta hauen azterketa izango da bere lan nagusia.



Koordinatzailea: Lionel Joly

7 Garatutako proiektuak



7.2 Arloa: Argitalpenak

7.2.1 Bat Soziolinguistika Aldizkaria

2004an, SEI Elkartea desagertzearekin batera, BAT aldizkariari Soziolinguistika Klusterraren baitan jarraipena ematea izan da aurtengo erronka. Behin Klusterraren baitan izanda, erakunde horren baitako Argitalpen Batzordeak berak erabaki du, orain artean bezala, aldizkariari jarraipena zein modutara egin.


Bestalde, Soziolinguistika Klusterrak BAT aldizkarian argitaratu diren artikulu guztiak, bildutako ezagutzaren zabalpena egiteko, edonoren eskura jarri asmo ditu. Horretarako, bere webgunean (www.soziolinguistika.org) irakurlearen eskura jartzen ditu eta hauek ahalik eta modurik eroso edota errazenean aurkitu ahal izateko, bilatzailea bat osatu eta garatu du.

Jarraian dituzue 2005ean zehar argitaratuko diren zenbakiak:

- 54. zenbakia. Martxo:** Euskararen erabileraren eta normalizazioaren azterketa udaletan
- 55. zenbakia. Ekaina:** Euskararen erabileraren eta normalizazioaren azterketa administrazioan
- 56. zenbakia. Iraila:** Euskararen erabileraren eta normalizazioaren azterketa lan-munduan
- 57. zenbaki. Abendua:** *The acquisition of basque as a second language* (EUROSLA kongresuko lanak)

Datorren urterako berriz, BAT Soziolinguistika aldizkariaren erronka nagusia, argitalpen batzorde, eduki, formatu, itxura, eta abarri dagokionez, berritzeko proposamena osatzea izango da.

> | Koordinatzailea: Larraitz Garmendia
larraitz@soziolinguistika.org



7

Garatutako proiektuak



7.2.2 Soziolinguistika Klusterraren webgunea

SL-Klusterre erakunde berria izan arren, bere webgunea ez da hutsetik abiatu. Klusterraren webgunean aurrez SEI Elkartek bere webgunean eskaini izan duen hainbat informazio eta zerbitzu (Bat Soziolinguistika Aldizkariako artikuluak, Euskal Herriko IV. Euskararen Kale Erabileraren Neurketaren emaitzak, Euskararen Datu Basea...) eskaintzea aurreikusten zen eta egokitzapen lan hori egin du.

Horrez gain, webguneak dituen erabiltzaile maila ezberdin bakoitzari (erabiltzaile arruntak, Klusterreko bazkide erabiltzaileak eta bazkide sustatzaileak) zein informazio eta nola eskaini lantzen aritu da. Webgunearen kudeaketari dagokionean, bulegotik kudeatu ahal izateko moduan diseinatu dugu eta horretan beharrezko trebakuntza jaso. Webgunea osatzeko, software librearen aldeko apustua egin da eta Drupal programa hartu dugu horretarako oinarri.

2005ari begira bi helburu nagusi jarri ziren. Batetik, erabiltzaileei begira, abian diren proiektuei buruzko oinarrizko informazioa, dokumentu interesgarrietara estekak, datuak, artikuluak eta bestelakoak kontsultatzeko aukera. Bestetik, SL Klusterreko kideei eta proiektuetan parte hartzen ari diren aditu eta bazkideei begira, proiektu bakoitzaren bilakaera kontsultatu ahal izatea, proiektuetan sortutako informazioa trukatu ahal izatea, bileren aktak eta bestelakoak webgunetik eskuratzea...

Honi guztiari begira, aurretik aipatutakoaz gain, bost tresna edo atal nagusi gehitu zaizkio:

- **Soziolinguistika materialak:**

Soziolinguistikarekin lotura duten ikerketak, artikuluak, dokumentuak... bertan jasotzeko ekin zaio.

- **Estekak:** Hizkuntzarekin lotura duten Euskal Herriko eta munduan zeharreko webgune interesgarrietako lotura bertan biltzen hasi dira.

- **Bazkideentzako berri paper**

elektronikoa: Soziolinguistika Klusterraren inguruko informazio zehatza eta zuzenekoa izan dezaten modu azkar eta errazean, elkartearen inguruko berri emateko berri papera sortu da.

- **Proiektuak:** Atal honetan bazkideek proiektuaren kokapen orokorraz aparte ondorengo informazioa dute eskura: zuzendaria eta koordinatzailearen erreferentziak, egoera... Bai eta proiektua beraren diseinua jasotzen dituzten dokumentuak ere.

- **Proiektuen kudeaketarako tresna:**

Proiektuetako kideen elkarlana errazteko sortutako tresna dugu. Bertan dokumentuak biltzeko aukeraz gain, gai zehatz baten inguruko iritzi trukaketak, informazioa trukatzeko... eta beste hainbat lan errazten laguntzeko tresnak daude eskura.

Azkenik, Soziolinguistikazko materialen atala, material gehiagorekin hornitu eta datu base modura antolatuz, materiala erraz eskuratzeko bilatzaile bat abian jartzea izango da gure hurrengo egiteko nagusia.



Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

7 Garatutako proiektuak

7.2.3 *SOZIOLINGUISTIKAZ* berri papera

SOZIOLINGUISTIKA BERRIPAPER ELEKTRONIKOA euskararen normalizazioarekin loturiko edota soziolinguistika arloko gaien inguruko informazioa zabaltzeko sorturiko orri elektronikoa da. Soziolinguistika Klusterrak atondu eta doan zabaldu du orain artean, web bidez eta posta elektronikoko mezu bidez, arlo honetan interesa duten guztientzat Soziolinguistikaz berripapera euskarri elektronikoa soilik banatzen da, eta formatu laburrean, kasu bakoitzean informazio zabalagoa eskuratzeko dagokion helbide elektronikoa lotura bertan jarritz.

Soziolinguistikaz berripapera bi hilabetean behingo maiztasunez 800 bat helbidetara zabaltzen da. Tartean dira udaletako euskara zerbitzuak, euskara elkarteak, erakunde ezberdinetako euskara teknikariak, irakaskuntza arloan normalkuntza plangintzetan dihardutenak, unibertsitateko irakasleak, euskaltegiak...

Aurrera begira SL Klusterrak duen erronketako bat, Soziolinguistikaz berri papera bera sendotu eta ahal den neurrian maiztasun gehiagorekin bidaltzeko aukera aztertzea izango da. Honekin bezala, baita bazkideentzako berri paper elektronikoa ere.

> | Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org



7.2.4 *The Case of Basque: Past, Present and Future* liburua

Joshua A. Fishman editore duen IJSL aldizkariaren 174 zenbakirako hainbat artikulua prestatu zituzten Euskal Herriko aditu desberdinek. Aldizkarian ordea, guztientzako lekurik ez zegoenez, zenbait lan argitaratu gabe geratu ziren. Soziolinguistika Klusterrak artikulua horiek argitaratu eta nazioartean zabaltzeko proiektua osatu zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bat egin zuten egitasmo honekin. 2005ean zehar liburuaren osatze eta itxuratze lanetan aritu ginen, Klusterreko bazkide diren Eusko Ikaskuntzako Iñaki Martinez de Luna eta Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko Mari Jose Azurmendiren gidaritzapean. Azkenik, hiru erakundeon elkarlanari esker liburua laster kalean izango dugu.

> | Koordinatzailea: Lionel Joly
lionel@soziolinguistika.org

7 Garatutako proiektuak



7.3 Arloa: Formazioa

7.3.1 *Euskararen transmisioa eta erabilera* jardunaldia

Proiektuaren xedea hizkuntza normalizaziokorako estrategikoa den gai bati buruz Eusko Jaurlaritza egin zuen ikerketaren ondorioak azaltzea eta hainbat aditurekin kontrastatzea izan zen. Honetarako Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik Soziolinguistika Klusterrari jardunaldi bat elkarlanean antolatzea proposatu zioten. Jardunaldi hauen antolaketan Klusterreko kide den Nafarroako Euskara Teknikarien Elkarte ere aritu zen.

Bertan aurkeztu zuten Ikerketaren gaia hizkuntzaren erabilera eta familia bidezko transmisioa, irakaskuntza euskaraz jaso duten pertsonen kasuan izan zen. Ikerketaren funtsa irakaskuntzaren bidez euskaldundu direnen jokamoldeak ezagutzea zen beraz.

Jardunaldia maiatzaren 26an burutu zen Eusko Jaurlaritzako Areto Nagusian. Gonbidatuen aldetik oso harrera ona izan zuten, 160 bat lagun izan baitziren bertaraturakoak. Bestalde, eduki aldetik ere, nahiko osatua geratu zen eguna, Eusko Jaurlaritzako Jon Aizpuruak ikerketako emaitzak aurkeztu ondotik, Grup Catalá de Sociolingüística-ko Joaquim Torresen eta Lasarte-Oriako euskara Teknikaria, Iñaki Arrutiren hitzaldiak izan genituen. Amaitzeko, aurreko biez gain, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Mikel Zalbide, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko Erramun Osa, Urtxintxako Jaime Altuna eta Alkarbideko Manu Gañan izan genituen mahai inguruko partaide.

► | Koordinatzailea: Iker Salaberria
iker@soziolinguistika.org



7 Garatutako proiektuak

7.3.2 Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan

Soziolinguistika Klusterrak bere egitekoen artean jaso du soziolinguistika arloko ezagutza zabaltzea eta beraz, horretarako formazio lanak egitea. Bide honetan egun jada egiten diren formazio eskaintzen baitan Soziolinguistika arloa txertatzea ikusi genuen lehen egin beharra. Honela, UEUri euren udako ikastaroetan Soziolinguistikari buruzko formazioa gure aldetik lantzeko eskaintza egin zitzaion. UEUK bere aldetik elkarlanerako prestutasuna adierazi eta eskura zuen azpiegitura eskaini zigun ikastaro hau antolatzen laguntzeko.

Ikastaroa, esan bezala, UEUko udako ikastaroen baitan, Uztailak 19 eta 20an Iruñeko Larraona ikastetxean eskaini zen. Izenburua, "Globalizazioa, Migrazioa Eta Hizkuntzak" izan zen eta landutako gaiak hiru galdera nagusiren inguruan ardaztu ziren:

- Egungo diskurtso soziolinguistikoek zenbateraino erantzuten diote globalizazioaren erronkari?
- Globalizazioaren harira nagusitzen diren diskurtsoetan zein etorkizun ikusten zaio hizkuntza-aniztasunari?
- Globalizazioaren eskutik areagotzen diren migrazioek zer-nolako arazo linguistikoak eragiten dituzte eta nolako erantzunak eman ohi zaizkie?

Ikastaroetan unibertsitateko irakasleenaz gain, esperientzia praktikoak garatzen ari diren erakundeek kideen eta teknikarien hitzaldiak eskaini ziren.

Parte hartu zuten ikasle-irakasleek eta bi erakundeetako kideok eginiko balorazioa ona izan zen. Aurrera begira, datorren urtean ere esperientzia errepikatu eta Soziolinguistika Klusterrak udako ikastaroetan Soziolinguistika arloko ikastaro berri bat antolatzeko asmoa adierazi zuen.

> | Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
pablo@soziolinguistika.org



8 Eskainitako zerbitzuak



8.1 Herrietako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak

Hainbat herritatik Euskararen Kale Erabileraren Neurketa egiteko interesa adierazi zioten Soziolinguistika Klusterrari. Lehendik SEI Elkarteak eskaintzen zuen zerbitzu honen eskaria dezentekoa zela ikusita, Soziolinguistika Klusterrak ere, zerbitzu hau eskaintzen jarraitzea erabaki zuen. Honela, 2005ean zehar ondorengo herrietan egin zituen neurketak:

- > Antzuola
- > Aretxabaleta
- > Eskoriatza
- > Getaria
- > Hernani
- > Oiartzun
- > Urretxu-Zumarraga

8.2 Ikastetxeetako Euskararen Erabileraren Neurketak

Villabonako Udalak herriko hiru ikastetxeetan eremu informaletako erabileraren neurketa egiteko interesa adierazi zuen. Soziolinguistika Klusterrak halako neurketak egiteko metodologia jaso du SEI Elkartearen eskutik eta Ulibarri Programan ere neurketa mota hau egin nahi duten ikastetxeentzako aholkularitza eskaini izan du. Hortaz, Villabonako udalaren eskaera erantzunez, bertako ikastetxeetako neurketak burutu zituen.

8.3 Euskaini neurketa

1999an Ofercat ezagutu eta Consorci-ko teknikariek lankidetzan hasi ondoren, SEI Elkarteak Ofercat egokitu zuen, Euskaini sortuz. Euskainik euskaraz egiten den eskaintzaren argazki on bat eskaintzen digu, zehatza eta konparagarria, eta informazio iturri oso egokia izan daiteke hizkuntza planifikazioan eta bere jarraipenean, bereziki udalerrri mailan. Metodologia hau beraz SEItik jaso zuen Klusterrak. Hau jasotzearekin batera ordea, Euskainiren erabilerarako aplikazio informatikoa garatu zuen.

laz, Oarsoaldetik egin zuten Pasaia, Lezo eta Oiartzunen Euskaini neurketa egiteko eskaera. Honela, bertako datu bilketa eta azterketa egitearekin batera, Klusterrak sortua zuen aplikazioa frogatu eta azken egokitze lanak egin zituen.

9 Soziolinguistika arloko sarea eratzen

Soziolinguistika Klusterra sortu zenean eginiko gogoetetan nabarmen ageri zen soziolinguistikaren inguruan lanean ibili bazebiltzala hainbat erakunde eta norbanako. Hau kontutan hartuta gure egitekoetako bat ikusten genuen Klusterraren baitan, hauek guztiak proiektu desberdinetan egituratzen joatea. Hauekin guztiekin soziolinguistika arloko sarea eratzen joatea, hain zuzen. Bide honetan ere zenbait urrats eman dira. Horren erakusle, 2005ean zehar Klusterrarekin harreman mota bat edo beste izan dutenen zerrenda doakizue jarraian:

Izen deiturak	Erakundea	Harreman mota	Proiektua
1. Iñaki Martínez de Luna	Eusko Ikaskuntza	Proiektu zuzendaria	- <i>The Case of Basque: Past, Present and Future</i> liburua - ARRUE proiektua
2. Maria Jose Azurmendi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Proiektu zuzendaria Proiektu zuzendaria	- <i>The Case of Basque: Past, Present and Future</i> liburua - Bat Soziolinguistika Aldizkaria
3. Jaime Altuna	Gipuzkoako Urtxintxa Eskola	Proiektu zuzendaria Hizlaria	- Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia) - <i>Euskararen transmisioa eta erabilera</i> jardunaldia
4. Sonia Perez	Euskara Elkarleen Topagunea	Aholkularia	Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia)
5. Iñaki Eizmendi	Ttakun Euskara Elkartea	Aholkularia	Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia)
6. Zesar Martínez	EHU-UPV. Soziologia II. Saila	Aholkularia Hizlaria	- Gazteen hizkuntza jokaerak (Pasaia) - Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
7. Rosa Ramos	Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea	Zuzendaria Aholkularia	- <i>Euskararen transmisioa eta erabilera</i> jardunaldia - ARRUE proiektua
8. Iñaki Arruti	Lasarte-Oriako Udala. Euskara Zerbitzua	Hizlaria	Uliabarriko formazio saioetan
9. Xabier Bengoetxea	Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza Saila. Ulibarri Programa	Hizlaria	Uliabarriko formazio saioetan
10. J. Inazio Marko	EHU-UPV. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila	Zuzendaria Zuzendaria	- Ulibarri programa. Kalitate Lan Taldea - ERALAN proiektua
11. Denis Elortza	Emun Kooperatiba Elkartea	Proiektuko lan talde kidea	Ulibarri programa. Kalitate Lan Taldea
12. Xabier Isasi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Zuzendaria Aholkularia	- Lezoko eta Pasaiaiko haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna eta erabilera - ARRUE proiektua
13. Lore Erriondo	EHU-UPV. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila	Aholkularia	- Lezoko eta Pasaiaiko haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna eta erabilera - ARRUE proiektua

9


Soziolinguistika arloko sarea eratzen

Izen deiturak	Erakundea	Harreman mota	Proiektua
14. Kike Amonarriz		Aholkularia Aholkularia	- Buruntzaldeko Familia-programa: metodologia, hitzaldiak eta materialak - ARRUE proiektua
15. Imanol Larrea	Emun Kooperatiba Elkartea	Proiektuko lan talde kidea	ERALAN proiektua
16. Xabier Azkue	Elhuyar Aholkularitza	Proiektuko lan talde kidea	ERALAN proiektua
17. Jone Miren Hernandez		Proiektuko lan talde kidea Aholkularia	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - ARRUE proiektua
18. Inma Muñoa	Gipuzkoako Ikastolen Elkartea	Proiektuko lan talde kidea Aholkularia	- Bat Soziolinguistika Aldizkaria - ARRUE proiektua
19. Ibon Olaziregi	Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailako Euskara Zerbitzua	Aholkularia	ARRUE proiektua
20. Itziar Elorza	Gipuzkoako Ikastolen Elkartea	Aholkularia	ARRUE proiektua
21. Itziar Idiazabal	EHU-UPV. Euskal Filologia Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
22. Imanol Esnaola		Aholkularia	ARRUE proiektua
23. Pello Jauregi	EHU-UPV. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
24. Nekane Arratibel	Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza zientzietako Fakultatea	Aholkularia	ARRUE proiektua
25. Estibalitz Amorrortu	Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologia Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
26. Nekane Larrañaga	EHU-UPV. Soziologia I. Saila	Aholkularia Hizlaria	- ARRUE proiektua - Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
27. Kontsesi Berriotxo	EHU-UPV. Soziologia I. Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
28. Patxi Juaristi	EHU-UPV. Zientzia Politikoa eta Administrazioarena Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
29. Iñaki Yurrebaso	Aztiker ikergunea	Aholkularia	ARRUE proiektua
30. Juanito Etxeberria	EHU-UPV. Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila	Aholkularia	ARRUE proiektua
31. Amaia Antero	Ikastolen Elkartea	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan

9

Soziolinguistika arloko sarea eratzen

32. Xabier Aierdi	EHU-UPV. Soziologia I. Saila	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
33. Jokin Apalategi	EHU-UPV. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
34. Manu Sánchez de Miguel	EHU-UPV. Oinarrizko Prozesu Psikologikoak Saila	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
35. Castillo Suarez	Sakanako Mankomunitatea. Euskara Zerbitzua	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
36. Olatz Irizar	Sakanako Mankomunitatea	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
37. Pedro Albite	EHU-UPV. Soziologia II. Saila	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
38. Mikel Gereka	Bidelagun Elkartea	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
39. Isidro Herguedas	Bidelagun Elkartea	Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan
40. Itziar Aramaio		Hizlaria	Soziolinguistika ikastaroak UEUren udako ikastaroetan



10 Urteko helburuak eta balantzea

Ondorengo taulan jaso ditugu esparruz-esparru 2005erako jarri genituen helburuak:

Baliabideak

- Urteko balantze ekonomikoan defizitik ez izatea
- Langileen balorazio- eta asebetetze-indizeak 6tik gorakoak izatea, 10eko eskalan
- Zuzendaritzaren efizientziari buruzko autobalorazioa eta langileen balorazioa 6tik gorakoa izatea
- Langileen trebakuntzan, bakoitzak gutxienez 40 ordu egin izana lanordutan
- Staff-aren berdimentsionamenduari buruzko bulego teknikoaren eta Zuzendariaren balorazioa 6tik gorakoa izatea
- Lan giroari dagozkion bulego kideon asebetze-indizeak 6tik gorakoak izatea

Prozesuak

- Proiektuen kudeaketarako prozedura definitua eta berrikusia izatea
- Kalitateari buruzko oinarrizko formazioa jaso izana
- Bulegoan eta zuzendaritzan kudeaketa-sistemari buruzko errebisioa egin izana
- Ereduaren balidazio-indizeak 6tik gorako puntuazioa jasotzea
- Kudeaketa-sisteman gutxienez hobekuntzaren bat aplikatu izana
- Kudeaketa sistemari buruzko bulegoaren eta zuzendaritzaren balorazioa 6tik gorakoa
- Kudeaketa-sistemaren ezarpen maila 6tik gorakoa baloratzea

Garapena

- Proiektu bakoitzetik gutxienez bigarren produktu bat sortu izana beste garapen-arlo batean
- Nagusiki finantziatziora zuzenduriko proiektuen kopurua gehinez 2 izatea
- Garatutako proiektuen lorpen-indizeak 6tik gorakoak izatea
- Garapen-arlo bakoitzean gutxienez bina proiektu burutze

Erabiltzaile / Komunitatea


- Garatutako proiektuen ondorioz pertsona juridiko diren bazkideek jasotako etekin identifikagarri bat gutxienez izatea
- Base-erreferentziala sortu izana
- Pertsona juridiko diren bazkideen asebetetze-indizeak 6tik gorakoak izatea, 10eko eskalan
- Pertsona juridiko diren bazkide guztiek gutxienez proiektu batean parte hartu izana
- Pertsona juridiko diren bazkideen eskaeraz gutxienez bi proiektu garatu izana

Jarritako helburuen inguruko balantzeak berriz ondorengo grafikoetan islatu ditugu:

10 Urteko helburuak eta balantzea

10.1 Adierazleen balantzea


Erabiltzaileak eta konpromisoa



Datuak ez dituen adierazleak

- Axolatuak-indizeak
- Garapitako proiektuen oraindik pertsona juridiko diren baxtzeak jasotako datu identifikagarriak


(Barre) Prozesuak



Datuak ez dituen adierazleak

- Kudeaketa-sistemaren erabilera maila
- Bulegoen eta zuzendaritzaren balantzea
- Eraburien baxtzeak-indizeak


Baliabideak (pertsonek eta finantzak)



Datuak ez dituen adierazleak


- Autobalantzeak eta langileen balantzeak
- Bulego Telematikaren eta Zuzendaritzaren balantzeak
- Axolatuak-indizeak

Garapena



Datuak ez dituen adierazleak

- Garapitako proiektuen lortze-indizeak



10.2 Balantze ekonomikoa

GASTUAK 2005

Pertsonal gastua		126.916,97
Langileen soldata	88.445,12	
Kotizazio eta atxikipenak	34.580,17	
Dieta gastuak	3.891,68	
Gobernu organoak		9.998,00
Zuzendaritza batzordeko dietak	0,00	
Zuzendaria	9.689,54	
Lehendakaria	308,46	
Funtzionamendu gastuak		91.970,06
Gastu finkoa	13.070,21	
Azpiegitura gastu iraunkorrak (telefonoa, argia, ...)	4.980,55	
Gastu mekanikoak: gutunazal, sobre eta hiruorriko bat	9.938,37	
Kanpo zerbitzuak: diseinatzailea, itzultzailea, areto alogera...	45.613,93	
Lan taldeetako gastuak: dietak, aditu, proiektu zuzendaria,...	16.269,96	
Zabalkunde gastuak	2.097,04	
Finantza gastuak		290,77
Inbertsio-amortizazio gastuak		3.140,00
Zergak		5.558,29
Aurreikusi gabeko gastuak		0,00
OROTARA		237.874,09

SARRERAK: 2005

Dirulaguntzak		39.969,00
Eusko Jaurlaritza	18.989,00	
Gipuzkoako Foru Aldundia	20.080,00	
Kutxa	900,00	
Bazkidetzak: SEIko kuota guztien erdia		14.480,00
Norbanako erabiltzaileak	6.480,00	
Erakunde erabiltzaileak	2.000,00	
Erakunde sustatzaileak	6.000,00	
Proiektuak		116.999,65
Zerbitzuak		62.761,65
Produktu salmenta		10.490,88
Harpidetzak	10.185,00	
Liburu eta Bat-eko aleen salmenta	305,89	
OROTARA		244.701,19

SUPERABIT-A

6.827,10